



Kulturarteko festa Michelingo pilotalekuan.- Aurreko bi urteetako bazkariak izan zuten arrakasta ikusita, Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko guraso elkarteak den Burunzpek eta Lasarte-Oriako Udalak otordua Michelingo pilotalekura eramatea erabaki dute aurten. Atzo elkartu ziren ehun bat jatun bertan, eta ekitaldia deskribatzeko hitz hori bera erabili daiteke: arrakasta. Kultura desberdinetako herritarrak elkartu ziren atzo mahaien bueltan, plater desberdinez osatutako bazkariak gozatzeko. 60 familiak hartu zuten parte guztira, era guztietako jaki goxoak prestatuz. Inguru hauetan ohikoak diren piper beteak, legatza piperrekin, legatza txakoli erara eta beste hainbat dastatu ahal izan ziren, eta baita exotikoagoak diren beste hainbat ere: Mendebaldako Saharako 'cuscus' zapoetsua, Boliviako mani zopa, Marokoko Harira zopa, Dominikar Errepublikako oilasko eta arroz, Txileko azenario bizkotxoak, eta abar. Giro ederrean aritu ziren jakiak dastatzen Michelinera bertaratuak, eta digestioa egin ondoren gorputza dantzan jarri zuten Katherin Apoloren kumbia emanaldian eta haur zein helduentzako kulturarteko karaokean.

3 INGURUMENA Errausketaren aurkako aldarria larunbatean

Errausketaren aurkako manifestazioa antolatu du Aire Garbia plataformak larunbat honetarako. Okendo plazatik abiatuko dira, arratsaldeko bostetan. Herritarrei bertara joateko deia egiteko agerraldia egin zuten asteburuan, eta baita Zubietako errauste plantaren proiektua oraindik gelditu daitekeela ohartarazteko ere.

4 GASTRONOMIA Pintxo ibilbidea herriko hamaika tabernatan zehar

Aterpea merkatarik elkartek eta Lasarte-Oriako Udalak III. Pintxo Ibilbidea antolatu dute. Azaroaren 27, 28 eta 29an edukiko dute aukera herritarrek aurtengo edizioan parte hartuko duten 11 tabernen pintxoak dastatzeko. Berrikuntza gisara, pintxo onenari Martin Berasategi saria ere emango zaio aurten.




5 KULTURA Lasarte-Oria, akordeoia hiriburuarunbatean

Jendetzea gerturatu zen pasa den larunbatean kultur etxera, Zero Sette herriko taldeak antolatutako XII. Akordeoi jaialdiak gozatzera. Luxuzkoak izan ziren artista gonbidatuak eta haiek eskainitako emanaldiak. Amaieran artista denak elkartu eta Donostia 2016rako konposatutako abestia interpretatu zuten.

ADURIZ DE LASARTE S.A

Odolkia- Solomo ontzutua Solomoa baratxuritan
Etxeko txorizoa Tripakiak- Saltxitxak

Txistorra



Basurde burua
Baserri pateia

BERTAKO FABRIKAZIOA

Loidi Barren kalea 3 • 20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 361278 - 943 361655 - 943 362451

Bideo Lagunak

TIEN 21
Etxekotesna elektrikoetan adituak

Etorri erakusketako produktu berriak ikustera

Beherapen handiak!
Ez galdu aukera!!!

Donostia etorbidea 2 · Lasarte-Oria

Tel: 943 37 31 34

www.bideolagunak.com

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA

Ekintza ugari azaroaren 25a bitartean

Erakusketa, ipuin kontalaria, antzerkia eta Beldur Barik lehiaketako sari banaketa izango dira

Azaroaren 25a Emakumeenganako indarkeriaren aurkako Nazioarteko eguna da. Lasarte-Oriako Udalak adin guztietarako ekintzak antolatu ditu azaroaren 17tik 27ra bitartean egun hori gogora ekartzeko. Egunean bertan, Okendo plazan ekimen nagusia izango da, puntu more bat osatzea hain zuzen.

Lasarte-Oriako Udalak hainbat udal arlo eta elkarteren laguntzaz Emakumeen indarkeriaren aurkako nazioarteko eguneko egitaraua osatu du. Kontzientziazioa eta salaketa izango da helburu eta herri-tarrei hauetan parte hartzeko deia egiten du Udalak.

Erakusketa eta dokumentala

Ekintzak bihar hasiko dira, Antonio Mercero gunean, 'Diruaren sexu ezkutua' erakusketaren irekiera ekitaldiarekin.

Ekitaldia arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta honetan 'Larre Motzean' dokumentalaren proiektzioa egingo da.

Dokumentalean emakumeek euskal ekonomian duten garrantzia erakusten da.

Honek lotura zuzena du erakusketako gaiarekin. Izan

ere, emakumeak ekonomian izan duen papera aztertzen baita erakusketan eta horren sinbolo erakusgai izango diren diruzorroak dira.

Haurralde fundazioaren eta Malen Etxea elkartearen elkarlanari esker sortutako erakusketa dugu hau.

Erakusketa ikusteko astegunetan 17:30etik 19:30era hurbildu beharko dute herritarrek eta 12:00etatik 13:30era edo 17:30etik 19:30era asteburuan zehar.

Azaroaren 26ra arte izango da ikusgai.

Sari banaketa

Horretaz gain, azaroaren 20an, ostirala Beldur Barik lehiaketako sari banaketa egingo da Manuel Lekuona kultur etxeko areto nagusian.

Lehiaketa honetan beldurrik gabeko jarrerak adierazi behar dituzte 12 eta 30 urte



Kartulinez osatutako puntu morea osatu zen iaz Okendo plazan. Ekimena errepikatuko da aurten ere.

bitarteko gazteek haiek egingo dako bideo batean.

Bi lehiaketa maila daude Euskadiko eta herrikoa eta asteazkenean izango da herriko sari banaketa.

Puntu morea

Bestalde, azaroaren 25ean, emakumeenganako indarkeriaren aurkako egunean bertan ere izango da ekintzarik. Arratsaldeko 17:30ean Oken-

do plazara hurbiltzen diren herritarrei puzgarriak banatuko zaizkie eta guztien artean puntu more handi bat osatu beharko dute.

Ondoren, 18:00etan, haurrentzako ipuin-kontalaria izango da Manuel Lekuona kultur etxeko haur liburutegian. 4 eta 5 urte arteko haurrek hainbat abentura biziko dituzte Pello Añorgak kontatutako istorioei esker.

Antzerkia

Egitarauari amaiera emateko, azaroaren 27an, ostirala antzerki emanaldia izango da Manuel Lekuona Kultur etxean.

19:30etik aurrera, Make-lur, sexuen arteko bizikidetzarako emakume zentroko Interpretazio taldeak sortutako '9 mosaiko infinitu' lana eskainiko du. Sarrerak 3 euro balio ditu.



Gipuzkoako elkarbizitziari buruz aritu zen Maribel Vaquero ostegunean.

Gipuzkoako elkarbizitza mintzagai

BAI plataformak hitzaldi sorta antolatu du azarorako. Ostegun arratsaldean egin zuten lehenengoa, Villa Mirentxun. Elkarbizitza jorratu zuten, bi gonbidaturekin: Gipuzkoako Foru Aldundiko Bizikidetzeta eta Giza Eskubideen zuzendari Maribel Vaquerorekin eta bailarako Elkarbizi ekimeneko kide Mikel Aregirekin. 18:30ean hasi zen ekitaldia.

2014ko irailean sortu zuen Ganbo Iturri elkarteak Elkarbizi, eta orduz gozotik hainbat

jarduera egin dituzte, elkarbizitza ardatz izanik. Iaz hasi ziren "bizikidetzeta libre bat" eraikitzeke iritzia garatzen eta zabaltzen, egitasmoko parte-hartzaile zein herritarren artean eta horretan dihardute gaur egun ere.


"Ezinbestekoa" da bizikidetzeta jorratzea eta ezin da "bigarren plano batean" utzi, Maribel Vaqueroren hitzetan. Jakinarazi zuen Gipuzkoako 88 udalerritatik 12k lantzen dutela gaia egun, eta horietatik lau direla Buruntzaldea-

koak: Hernani, Urnieta, Andoain eta Lasarte-Oria. Era berean, nabarmendu zuen "giltzarria" dela bizikidetzari buruzko heziketa, belaunaldi berriek "gertatutakoaren berri" izan eta "ikusuntu kritiko" garatu dezaten.

Datorren ostegunean egingo dute bigarren hitzaldia, hilaren 19an, toki eta ordu berean. Orduko horretan Xabier Barandiaran irakaslea gonbidatuko dute, 'Abertzale-tasuna XXI. mendean' izeneko gaia jorratzeko.

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Erredakzioa:

Nerea Eizagirre, Martin Vicioso,
Iñigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa,
Ane Labaka, Mailu Arruti,
Asier Odriozola, Maider Segurola,
Gorka Alvarez, Jexux Artetxe,
Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

GAIA



Herritar andana gerturatu zen larunbatean Aire Garbia plataformak egindako deialdira.

Errausketaren aurkako aldarria

Manifestazioa deitu du Aire Garbiak larunbatean

Zubietako errauste plantaren aurkako Aire Garbia herritar plattformak agerraldia egin zuen larunbat eguerdian Sagardotegi plazan, errausketaren bidezko hondakinaren kudeaketa gaitzetsi eta lasarteoriatarrek larunbat honetako prentsaurrekora deitzeko. Okendo plazatik abiatuko dira hilaren 21ean, 17:00etan.

TXINTXARRI

Herritar andana gerturatu zen Sagardotegi plazara larunbatean, Aire Garbia errausketaren aurkako herritar plataformak egindako deia erantzunez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak (EAJ eta PSE-EEren esku legealdi honetan) adierazi du martxan jarriko duela berriro errauste planta eraikitze proiektua. Egitasmo eta hondakinak kudeatzeko eredu

horren aurka daudela adierazteko agerraldia egin zuen Aire Garbiak, eta baita datorren larunbatean egingo duen manifestaziora joateko deia egiteko ere. Errausketaren aurkako aldarria 17:00etan hasiko da, Okendo plazan.

Lasarte-Oriako baliza

Plataformako kideek azaldu zuten, Teresategiko pinutegia erabili dute Aire Garbiaren ikur gisara, "iturri eta birika" gisara. "Birika horiek

erabili nahi ditugu hodei kutsakor horri putz egin eta uxatzeko, eta baita herritarrei deia egiteko ere, datorren larunbateko manifestaziora ager daitezten". Arratsaldeko bostetan abiatuko da errausketaren aurkako aldarria hori Okendo plazatik.

Agerraldia amaitu aurretik, errauste plantaren proiektua gelditzea "posible" dela nabarmendu zuten plataformako kideek, eta Teresategiko pinutegia "dagoen bezala" mantendu nahi dutela, "Lasarte-Oriako baliza inguruko herriekin eta mundu osoarekin partekatuzeko".

Prentsaurrekoa amaitutakoan argazkia atera zuten agerraldira gerturatutako herritar eta eragile guztiek.

Osasuntsu egoteko, 'Ondo ibili'

Ondo ibili' egitasmoaren baitan, ostiralero 11:00etatik aurrea herriko hainbat bizilagun adinduk boluntario talde batek gidatuta ibilbide osasungarriak egiten dituzte. Okendo plazan biltzen dira astero-astero eta hauetan parte hartzeak badu saririk. Osasunean ibilbideak izan ditzaketen onurez gain, 10 ibilbide betetzen dituzten herritarrek kamixeta bat jasotzen dute.

Kirol eta Zerbitzu Sozialetako departamentuek herriko Biyak Bat, Odol-Emaileak eta Nagusilan elkartearen laguntzaz antolatzen dute ekimena eta egitasmoan parte hartzea sustatu aldera sariketa sistema ezartzea adostu zuten.



Ibilaldi osasungarrietan parte hartzen duten kideak eta alkatea ostiralean. T.VALLÉS

Ostiralean lehen kamixeta banaketa egin zen. Alkatearen eskutik, 7 lagunek jaso zuten 10 ibilbide osasungarri egin dituztela akreditatzen dien

elastikoa. Jesus Zaballosek aktibo mantentzera animatu zituen adineko pertsonak, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetzeko.

IRAKURLE TXOKOA

Itxaso Martin idazlearekin solasaldia

Hilabeteko hitzordua dute, bihar, 18:30etik aurrera irakurle txokoko kideek. Hilabete honetako saioan 'Ni, Vera' liburua aztertuko dute eta horretarako liburuaren idazlearen, Itxaso Martinen laguntza izango du herriko taldeak.

Bere lehen liburuan gizakien alderdi ilunetan barrena egiten du idazleak eta hala nola, hauei buruz mintzoko dira irakurle txokoa.

OSPAKIZUNAK

Rocioko Ermandadearen 20. urteurrena

Seblante Andaluz elkartearen barruan dagoen Rocioko Ermandadeak 20 urte beteko ditu igandean. Data berezi hori ospatzeko bi ekitaldi xume antolatu ditu asteburu honetan.

Ostiralean Ermandadeko kide eta lagunei luntxa eskainiztzaizen Seblante Andaluz elkartearen eta ostean, dantza egiteko aukera izan zuten Amigos del Sur taldearen emanaldiari esker. Igandean, berriz, egun seinalatua izanik, ermandadeko kideek bazkari herrikoia egin zuten elkartearen eta ostean, Seblante Rociero koruak girotutako bazkal ostea izan zen.

KULTURA

Lasarteoriatarrek bikain Zipristin pintura lehiaketan

Tamayo paper dendak, Donostiako Aquariumak eta Etiopia-Utopia Gobernu Kanpoko Erakundeak Zipristin lehiaketa antolatu zuten. Lehiaketako 24 sarrituen artean hamabi Lasarte-Oriako Brancussi eskolako kideak izan dira. Lehen postuan inor geratu ez bada ere, emaitza oso onak lortu dituzte. Izan ere, bi ikasle txapeldunorde izan dira eta hiruk hirugarren postua eskuratu dute.

Sei urte arteko sailean Lara Muñozek eskuratu du laugarren postua. Ander Gonzalez, bestalde, bosgarren izan da. 7-8 urtekoen artean, berriz, Andrea Lobato eta Maialen Aranzabe izan dira sarituak, hirugarren eta bosgarren izan baitira hurrenez hurren.

9-11 urteko hiru kidek lortu dute onenen artean izatea. Noa Murillo txapeldunorde geratu da. Erika Santano eta Marta Beorlegi, aldiz, hirugarren eta bosgarren. 12-14 urte bitarteko kadeteek izan dituzte emaitza onenak. Irabazlea ez beste guztiak lasarteoriarrek baitira. Irati Martijak, Maite Jaureguik, Janire Bajok eta Nahia Garciak osatu dute sailkapena. Gazteen kategorian Ainhoa Elzaurdik ohorezko aipamena lortu du.

KULTURA

Santa Zezilia eguna ospatzen

Azaroaren 22a, igandea, Santa Zezilia eguna da, Musikariaren zaindaria. Hori dela eta, herriko hainbat taldek bere zaindarien eguna ospatuko dute.

Lehenak, Musika Eskolako kideak izango dira. Ostegunean, azaroaren 19an, ikasleek kontzertua eskainiko dute Manuel Lekuonako aretoan.

Miren Etxenagusia zuzendariak azaldu digunez, "Euskal Herriko Musika Eskolen Elkarteak aurrean ere "Musikalean" antolatuko du zortzigarren urtez. Bertan 48 musika eskola ezberdinetako 1700 ikasle eta irakasle baino gehiagok hartuko dute parte. Guztion artean eguna ospatuko dugu musikaz".

UDALA

Parisko atentatuaren gaitzespena

Parisko hainbat gunetan erasoak eta tiroketak gertatu ziren ostiral gauean. Atentatu horien harira, Lasarte-Oriako Alkateak ohar instituzional bat plazaratu du. Honela dio:

"Ohar instituzional honen bidez, Lasarte-Oriako Udalak kondenatu egiten ditu atzo gauean Parisen gertatutako atentatuak, gutxienez 128 hildako eragin dituenak.

Lasarteoriar guztien izenean, Udalak elkartzuna adierazten die biktimei, horien familiei eta Frantzia osoari atseka-be une hauetan. Era berean, Frantziako erakunde eta autoritateei babesa adierazten diegu, herrialde laguna baitugu.

Atentatu horren izugarrikeriei fundamentalista eta intoleranteek kendu nahi dizkiguten demokrazia, justizia eta askatasunarekin erantzun behar diegu. Herrialde frantziarari omen eginez, gaur inoiz baino gehiago aldarrikatzen ditugu askatasuna, berdintasuna eta senidetasuna".

Pintxo ibilbidea herriko tabernatan zehar

Azaroko azken asteburuan edukiko dute aukera herritarrek pintxoak dastatzeko

Aterpea merkatarien elkarteak eta Lasarte-Oriako Udalak III. Pintxo Ibilbidea antolatu dute. Herriko 11 taberna hartuko dute parte aurtengoan; hilaren 27, 28 eta 29an dastatu ahalko dira edizio honetarako prestatu dituzten pintxoak. Larunbatean egitasmoa udaletxean, gonbidatu berezi batekin: Martin Berasategi sukaldariarekin. Herriko sukaldaritzaren maila goraiatu zuen aurkezpenean.

TXINTXARRI

Realeko jokalariei nik dastatutako pintxoak emanaz gero, entrenatzailek gabe ere ongi jokatuko lukete”, adierazi zuen Martin Berasategi III. Pintxo Ibilbidearen aurkezpenean, ekitaldiari amore ukitua emanaz. “Maila handia dago herrian, zaila egin zait onena aukeratzeko”, gaineratu zuen. Pintxo goxoak dastatu nahi dituen orok azaroko azken asteburuan edukiko du aukera jaki horiek dastatzeko: Azaroaren 27an (ostirala) 19:00etatik 21:00etara, eguerdian zehar eta 19:00etatik 21:00etara 28an eta eguerdian zehar 29an.

Arkupe, Buenetxea, Izurde, Yolanda, Trumoi, Avenida, Sancho, Lasarte, Viña del mar, Curia eta Ilargi taberneak hartuko dute parte. 2 euro balioko dute pintxoak eta jatekoarekin batera edaten

dena aparte kobratuko dela jakinarazi zuten antolatzaileek. “Ostalaritza bultzatzea berebizikoa da herriarentzat, eta arrazoi horregatik antolatzen ditugu horrelako ekintzak”, esan zuen alkateak.

Ramon Ormazabal Aterpeko lehendakariak azaldu zituen egitasmoaren oinarriak: “Eskuorri bat emango zaie bezeroei; horretan puntuatu beharko dituzte pintxoak. Taberna bakoitzak zigorria jarriko du herritarren eskuorrietan, eta behin zigorria denak bildutakoan 100 euroko zozketan sartuko dira”.

'Martin Berasategi' saria

Aurkezpen ekitaldira gonbidatu berezi bat eraman zuten antolatzaileek: Martin Berasategi sukaldaria. Ormazabalek eskerrak eman zizkion pintxo ibilbidea antolatzeko “emandako laguntza guztiagatik eta lehen unetik erakutsitako prestutasunagatik”.



Herriko hainbat ostalarik, Martin Berasategi eta udal ordezkariak argazkia atera zuten aurkezpen ekitaldiaren amaieran.

Aterpeko lehendakariak jakinarazi zuen 'Martin Berasategi' saria ere egongo dela aurtengo edizioan. Sukaldariak ibilbideko 11 pintxoak dastatu zituen larunbatean, eta horien artean onena aukeratu ere bai. Erabakiaren berri ez du emango pintxo ibilbidea amaitu arte. “Oso zaila egin zait irabazlea aukeratzeko, maila handia dago herrian; plazera da niretzat horrelako ekitaldiak antolatzen laguntzea”, azpimarratu zuen Berasategi.



Martin Berasategi sukaldariak taberna parte-hartzaileen pintxoak dastatu zituen.

Antzerkiaren baitako antzerkia

Herriko Danok Kide elkarteak aurtengo ikasturterako hainbat kultur ekitaldi antolatu ditu. Pasa den ostiralean egin zuten horietako bat kultur etxean.

Donostiako Teatro Estudio antzerki taldeak 50 urte bete ditu aurten; urtemuga berezi hori ongien egiten dakitena erakutsiz ospatu zuten, taula gainera igoz aлегia. Bugoslaw Schaefer egilearen 'Ensayo para siete' antzezlan moldatua oholtzaratu zuten Manuel Lekuonara gerturatu ziren herritarren gozamenarako.

Jolas moduko batean murgildu ziren ikusleak ostiralean. Ariketa horren bitartez antzerki saio baten sortze-prozesuan hartu zuten parte. Aktore taldeak zuzendari gaztearen gidaritzapean entsaiatu zuten; antzerkiaren baitako antzerkia izan zen beraz, aktoreek lanean eta bizitzan izan ditzaketan egoerei buruzko gogoeta eta guzti.

Ostiralean joaterik izan ez zutenek ez dute zertan kezkatu, hilaren 26an beste antzez-



'Ensayo para siete' antzezlan moldatua oholtzaratu zuten Donostiako Teatro Estudiok ostiral arratsaldean.

lan bat interpretatuko baitu Donostiako Teatro Estudio antzerki taldeak berak. Orduko horretan 'Una comedia Española' antzezlan moldatua oholtzaratuko dute. Yasmina Reza da horren egilea. Saio hori pasa den ostiralekoaren

toki eta ordu berean izango da, Manuel Lekuona kultur etxean, 19:30ean.

Egitarau zabalera prestatu du Danok Kide elkarteak aurtengo ikasturterako. Esaterako, abenduaren 4an, ostiralean, beste hitzordu bat

edukiko dute herritarrek. 100 urte bete ditu aurten Brigitarren komentuko organuak, eta mendeurrenaren omenez kontzertua prestatu du Danok Kide elkarteak

Orduko horretan Haizea Muñozek (ahotsa) eta Ana

Belen Garcia (organua) eskainiko dute emanaldia, komentuan bertan. Antolatzaileek zehaztu dute aldaketak egon daitezkeela oraindik egitarauan. Momentuz, J.S. Bach, Henry Purcell eta Aita Donostiaren mailako konpositoreen piezekin osatu dute programa, besteak beste.

Donostiarra da jaiotzez Haizea Muñoz. Zuzenbidean lizentziatu zen EHU Euskal Herriko Unibertsitatean 2003. urtean, eta handik lau urtera amaitu zituen kantuko goimailako ikasketak Musikene zentruan. Mundu osoan zehar aritu da Muñoz kantuan eta Opus Lirica konpainiako kide da; Sevillako El Barbero operan egin zuen debuta.

Ana Belen Garcia Andoainen jaio zen, eta bertan egin zituen musika ikasketak ere. Donostiako kontserbatorioan burutu zuen piano prestakuntza eta Musikene bertan amaitu organu-ikasketak. Bakarleri zein laguntzaile gisa hartu du parte hainbat jaialdi internazionalen.



Eric eta Sandra Bouvellek txundituta utzi zituzten ikusleak larunbatean.



Donostiako Musika Eskolako dantzariak euren abilezia erakutsi zuten.

Lasarte-Oria, akordeoiaren hiriburu

Ikuslez lepo egon zen kultur etxea larunbatean

Larunbatean Manuel Lekuona kultur etxera gerturatu ziren ikusleek gogotik gozatu zuten Zero Settek antolatutako XII. Akordeoi jaialdian. Luxuzkoak izan ziren artista gonbidatuak, eta maila berekoak eskaini zituzten emanaldiak ere. Emanaldi amaieran denak batu ziren oholtza gainean; Donostia 2016 kultur hiriburuko abestia jo zuten.

Lasarte-Oria akordeoiaren hiriburu izan zen larunbatean. Instrumentu hori ardatz duen jaialdia antolatzen du herriko Zero Sette taldeak urtero; XII. edizioa izan da aurtengoa.

Ohi bezala, artista gonbidatuak luxuzkoak izan ziren, eta maila berekoak Manuel Lekuona kultur etxean eskaini zituzten emanaldiak ere. Hasi aurretik minutu bateko isilunea egin zuten bertaratutakoek, Parisko biktimen omenez.

Lasarte-Oriatik 80. hamar-kadako Paris erromantikora

garraiatu zituen ikusleak Eric Bouvelle akordeoijole frantziarrak. 50 obra baino gehiago konposatu ditu artistak bere ibilbide oparoan; horietako hainbat taularatu zituen larunbatean. 1988an Munduko Kopa irabazi zuen, 16 urte besterik ez zituela. Etorkizun oparoa zuela erakutsi zuen Bouvellek, eta berretsi egin du hori urteen poderioz.

16 urte ez, 17 ditu Mirari Etxeberria biolinista donostiarra, eta hark ere berretsi zuen zeresan handia emango duela datozen urteetan. 'Dan-

tza makabroa' pieza interpretatu zuen, Donostiako Musika Eskolako dantzari eta Zero Sette akordeoi taldearekin.

'Musikatu bizitza'

Ordura arte aritutako artista denak taula gainean elkartu eta 'Musikatu bizitza' abestia jo zuten elkarrekin, Donostia 2016 Kultur Hiribururako bereziki konposatutakoa hain zuzen ere, amaiera fresko eta berezia emanez jaialdiari.

Donostia izango da kultur hiriburua datorren urtean, baina akordeoiarena Lasarte-Oria izan zen larunbatean. Kultur etxera gerturatutako ikusleek txalo zaparrada ozen eta luze batekin agurtu zituzten jaialdiko protagonistak larunbatean. Era berean, artistek sariak jaso zituzten Zero Setteko eta Udaleko ordezkarien eskutik.



Mirari Etxeberria biolinista gazteak oroigarria jaso zuen larunbatean.

Festa elektronikoa Elebeltzen

Asteburuko ajea erabat pasa arte itxaron beharko dute, baina ez litzateke harrizkoa izango antolatzaileak Elektronika Festibalaren II. edizioa lehenbailehen antolatzen hastea, lehenengoak eduki duen arrakasta izugarria ikusita.

Oso harrera ona izan zuen zaleen artean elektronika festibalak. Aurreko astetik sumatzen zen hori, herriko hainbat taberna eta komertziotan salgai zeuden sarrerak ia erabat agortu baitziren, antolatzaileek jakinarazi zuten.

Larunbat arratsaldeko bostetan berretsi zuten sentsazio hori, jendetza bildu baitzen Okendo plazan Rezibatukadako kideekin batera herrian

zehar poteoa egin eta Elebeltzera abiatzeko.

Behin hara iritsita, etengabeko festa. Arratsaldeko seieta-tik atzo goizeko zortziak arte musika elektronikoa eta giro ona izan ziren protagonista. Gauean zehar hainbat herritar gerturatu ziren Kotxeras auzora, jaialdiaz gozatzen.

Ruben Rubio, Paolo Solo, Furonia, M_Nu, Julen-K eta Txoni artistek dantzan jarri zituzten Elebeltzera gerturatutakoak, atsedena hartzeko astirik eman gabe apenas.

Gau osoan zehar giro aparta egon zen Elebeltz topagunean; lagun gutxiren arteko topaketa izan behar zuena jaialdi erraldoi bilakatu zen.



Rezibatukadako kideak hasi ziren arratsaldea girotzen Okendo plazan; Elebeltzera abiatu ziren gero hainbat herritarrekin batera.

SASKIBALOIA.

Dinamika negatiboa hautsi dute Errendimenduko juniorrek

Gogotik izerditu zuten Ostadar SKTko neskek larunbatean Ursa Oriori irabazteko (46-40)

Bi partida erreskan galtzetik zetozen Ostadar SKTko neskek. Larunbateko aurkari Ursa Orio berriz, hiru norgehiagoka jarraian irabazita. Gogotik izerditu behar izan zuten Ander Otaegik zuzendutako jokalariek, baina azkenean 46-40 hartu zuten mendean kostako taldea, dinamika negatiboa apurtuz horrela.

TXINTXARRI

Irabaztea. Hori zen Ostadar SKTko Errendimenduko juniorrek larunbatean zuten helburu nagusia. Partida hasi aurretik azken jarraibideak eman zizkien jokalariei Ander Otaegi entrenatzaileak; irabaztearen garrantzia izan zen gehien errepikatu zuen ideia. Partiduko atsedendaldi guztietan ere ekarri zuen gogora.

Garaipenaren bila kantxaratu ziren bi taldeak hasieratik. Erritmo bizikoak izan ziren lehen bi laurdenak. Biziegiak, akaso: Arerioaren saski ingurura azkarregi iritsi nahi denean areagotu egiten da hutsak egiteko arriskua, eta hala gertatu zen. Etxeok egin zituzten jokaldi on batak, baina beste eraso askotan ez zituzten paseak behar bezala egin eta galdu zituzten zenbait baloi. Hala ere, orio-

tarrek ez zituzten kontraeraso horiek saskiraketa bihurtu.

Etxeok 7 puntuko alde lortu zuten lehen laurdena amaitzean, eta atsedendaldira 23-15 markagailuarekin joan ziren. Alde hori izan zitekeen nabarmen handiagoa, baina etxeok ez ziren batere fin ibili jaurtiketa libreetan.

Azken jardunaldietako mamuak kantxan

Hirugarren laurdena hastekoan bazirudien garaipenak ez ziela ihes egingo, zortzi puntuko alde baliatuko zutela bi puntuak poltsikoratzeko. Dinamika negatiboan sartuta daudenean ordea, talderik onenek ere majo sufritu behar izaten dute partidua aurrera ateratzeko, nahikoa baita laurdenari behar bezain ondo ez ekitea azken jardunaldietako mamuak azaltzeko kantxan.

Hori gertatu zitzaion etxeko taldeari atzo, eta aurreko bi



Garaipen garrantzitsua erdietsi zuten Errendimenduko juniorrek larunbatean, Ursa Orio taldearen aurka.

laurdenetan lortutako alde berehala murriztu zuen Ursa Oriok, eta bete-betean sartu zen norgehiagokan berriro ere.

Horrela ekin zioten bi taldeek laurden erabakigarriari. Orduan atera zuen Ostadarrek barruan daraman garaile sena, eta denek batera gogorlan eginez hiru puntuko alde lortu zuten. Oriotarren jokalaria onena kaleratua izan zen 5 faltarekin, eta etxeok ongi kudeatu zuten errenta garaipena erdiesteko, 46-40.



Jokalariek Ander Otaegi entrenatzailearen jarraibideak entzuten.

ARETO-FUTBOLA.

Ostadar Antonioren porrota Meatzariren aurka

Ostadar Antonio Aroztegiak saillkapeneko azken postuetatik ihes egiteko beste aukera bat galdu zuen pasaden larunbatean.

Herriko taldeak ongi jokatzen du, aukerak ere sortzen ditu, baina ez ditu gol bihurtzen. Egoera horren aurrean, 3. Nazionaleko arerioek ez dute barkatzen, eta horrelaxe gertatu zen larunbatean ere.

0-0eko markagailuarekin joan ziren atsedendaldira bi tal-

deak. Golik gabeak, baina ikustekoak izan ziren lehenengo 20 minutuak. Erritmo oso bizian jokatu zuten bi taldeek, kantxaren alde batetik bestera baloia bizkor mugituz eta aukera ugari sortuz. Ostadarena izan zen aukera garbiena, baina zutoinarekin egin zuen topo.

Bigarren zatian garaipenaren bila irten ziren berriro ere bi taldeak, baina kanpotarrek irabazi zuten, 0-3.



FUTBOLA.

Merezi baino sari gutxiago Texasentzat

Garesti saldu zuten Texas Lasartearrako jokalariek larunbateko porrota. 1-2 galdu zuten Zarautzen aurka, zapore garratza utziz Vicente Gilen mutilen ahoetan, merezimenduak soberan egin baitzituzten esku hutsik ez geratzeko. Aipatu behar da baita ere 12 jokalarikoa izan zela etxeko taldearen deialdia, lesioak eta lan konatuak tarteko.

Orekatua izan zen lehenengo zatia, borrokatua; etxeko taldeak ez zuen baloi bakar bat ere galdutzat ematen, indartsu joaten ziren galdutako baloiak berreskuratuz. Joko zuzenaren aldeko apustua egin zuen Texasek, baloi luzeekin aurrelari bizkorak bilatu nahian.

Horetako batean iritsi zen lehen zatiko aukera garbiena, baina Zarauzko atezainak bikain geratu zuen Texaseko aurrelariaren jaurtiketa. Lehen zatia amaitu aurretik ordea, etxeko taldeko jokalaria bat, Walter, kaleratu zuen epaileak.



Garesti saldu zuten larunbateko porrota Texas Lasartearrak.

Husnako emaitzarekin joan ziren bi taldeak aldageletara.

Texas ez zen kikildu ordea, eta markagailuan aurretik jarzea lortu zuen 60. minutuan Juan Carlosek sartutako golari esker. Orduan egin behar zuten lan zailena Vicente Gilen mutilak: Emaitzari eustea. 1-0ekoa mantendu zuten 75. minutura arte; atzeko lerroaren akats bat baliatu zuen Zarautzek markagailuan banakoa jartzeko.

Maldan gora jarri zitzaion norgehiagoka Texasi 80. minutuan, epaileak bigarren txartel horia atera baitzuen Ander Iñigo jokalaritari. Erabakia asko protestatu zuten etxeok, eta are gehiago handik bi minutura Zarautzen aldeko penaltia. Kanpoko taldeak ez zuen hutsik egin eta 1-2 aurreratu zen. Handik amaierara bitartean berdinketaren golaren bila aritu zen Texas, baina ez zuen lortu.

Agenda

Asteartetik azaroaren 26ra arte, Antonio Mercero gunea



Emakumeak eta ekonomia

"Diruaren sexu ezkutua" erakusketa izango da ikusgai. Honetan, emakumeen ekonomiararen alderdi sinbolikoa erakusten da, diru zorroak. Bihar, 18:00etan, erakusketa-aren inaugurazioa egin eta euskal emakumeek ekonomiari egiten dioten ekarpena bistaratzen duen "Larre Motzean" dokumentalaren eskainikoda da. Haurralde fundazioa eta Malen Etxea elkartearen eskutik Erakusketa ikusteko ordutegia: astelehenik ostiralera, 17:30etik 19:30era eta asteburuan, 12:00etatik 13:30era eta 17:30etik 19:30era.

MANUEL LEKUONA
Igandea, 17:00etan
"¡Ups! ¿Donde esta Noe?" animaziozko filmaz gozatzeko aukera izango da haurrentzako zinema atalean. Sarrera 3,80 euro.

MANUEL LEKUONA
Igandea, 19:30ean
"Irrational Man" filma helduen zine atalean. Sarrera 5,50 euro.

Zartzuela
MANUEL LEKUONA
Larunbata, 20:00etan
"Luisa Fernanda" zartzuelaren bertsio digitala. Sarrera, aurrez, 7,5 euro, egunean bertan 9 euro.

Hernani
Hitzaldia
BITERI KULTUR ETXEA
Astelehena, 19:00etan
Ainhoa Intxaurrendietak, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioaren lehendakari ohiak "Errauskailua Gipuzkoan. Ez al genuen, ba, gelditu?" hitzaldia eskainiko du. Zero zabor elkarteak antolatua.

Usurbil
Kulturaldia
SUTEGI UDAL LIBURUTEGIA
Azaroaren 9tik 14ra
Joseba Larratxeren "Lauki" erakusketa ikusgai. Argia aldizkariarentzako eta honen Larrun gehigarriarako egindako azalen aukeraketa. Datak: 2013-2015.

Lasarte-Oria
Irakurle txokoa
MANUEL LEKUONA
Asteartea, 18:30ean
Uxue Alberdik gidatuta, "Ni Vera" liburua aztertuko da. Bisita berezia izango dute gainera, Itxaso Martin idazlearena.

Ipuin kontalaria
HAUR LIBURUTEGIA
Asteazkena, 18:00etan
6 eta 8 urte arteko haurrei zuzendua ipuin kontalari saioa izango da. Kontu-kantoiko lagunen hitz eta marrazkien bidez, haurrek milaka istorio ezagutuko dituzte.

BAI II. Topaketak
VILLA MIRENTXUN
Osteguna, 18:30ean
BAI II. Topaketen barruan "Abertzaletasuna XXI. mendean" mintegia eskainiko du Xabier Barandiaran soziologoak.

Musika
MANUEL LEKUONA
Osteguna, 19:00etan
Santa Zezilia eguneko kontzertua eskainiko dute Musika eskolako ikasleek.

Saribanaketa
MANUEL LEKUONA
Larunbata, 12:00etan
Lasarte-Oriako Literatura Lehiaketa eta

Haur Literatura Lehiaketako saribanaketa egingo da.

Antzerkia
MANUEL LEKUONA
Larunbata, 17:00etan
Gorakada konpainiak "Moby Dick" liburuaren moldaketa eskainiko du. Lan klasikoetara haurrak hurbiltzeko aurkera paregabea. Sarrera 3,80 euro.

Zinea
MANUEL LEKUONA
Ostirala, 22:00etan
Woody Allenen "Irrational Man" filma Okendo Zinema taldearen zine forum atalean. Sarrera 5,50 euro.

Herritarren txokoa

Lasartearra elkarteko loteria
Noaia Bidaia hurrengo urterako bigarren irteera prest du, Greziar irletara kruzeroa astebete zerbitzu guztiak barne.

Irailak 12an irteera eta irailak 19 an buelta. Lasarte-Oriatik autobuses Loiuo aireportura eta bertan hegazkinez.

Informazio gehiago 943373613, info@noaoabidaia.com edo ofizinara hurbilduz Hipodromo etorbidea 10. Bulego ordutegia, 09:30etik 16:30era.

Lasartearra elkarteko loteria
Lasartearra elkarteak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

65ean jaiotako afaria
1965. urtean jaiotakoek azaroaren 28an afaria antolatu dute haien 50 urteurrena ospatzeko. 'El Jardin' jate-txean izango da afaria, 21:30ean. Menua 40 eurokoa da eta Laboral Kutxako ES54 3035 0036 150361135575 k/k zenbakian egin

behar da diru sarrera azaroak 20a baino lehen. Informazio gehiago eskuratzeko, 653 712 373 Idoia.


63an jaiotako afaria
Aurten ere 63an jaiotako afaria antolatuko da. Azaroaren 21ean, 21:00etan, Goiegi Jatetxean egingo da afaria. Aurrez, Okendo plazan geratuko dira 20:00etan pote bat hartzeko.

Menua 36 eurokoa da eta Laboral Kutxako ES13 3035 0036 150361135634 kontu korrante zenbakian egin behar da diru sarrera.

Informazio gehiago, Agustín Markos, 600 799 772 edo J.F. Solano, 657 770 318.

Hemeroteka

Duela 1089 ale



1997ko azaroan Lasarte-Oriako hilerri zaharraren azken hilabetei buruzko erreportajea argitaratu zen TXINTXARRI-n.

1998ko urtarriletik aurrera hilerrian geratzen ziren gorpuzkinak atara beharko zirela azaltzen zen honetan eta gorpuzkinak lekuz aldatzeko eman beharreko pausoak azaltzen ziren, baita Udalak laguntzak edo erraztasun ekonomikoak emateko aukera aztertzen ari zela ere.

Illarraltzuetako hilerrian lekuri ez zegoela ere aipatzen zen artikuluan eta honen alternatiba gisa, errausketa zegoela jakitera ematen zen. Julio Legaz, Zerbitzuetako Batzordeko lehendakariak azaltzen zuenez, "hemen-dik urte batzuetara hilerriak desagertu egingo dira, errausketarako joera gero eta handiagoa delako".

Hau guztiaz gain, hilerri zaharreko atean zegoen esaldia ere ekartzen zuen gogora, 'Laister esango da zuegatik esaten oi dana gugatik ¡Ill ciran!'.

Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Saltzaileek larunbateko baserri azokara ekarritako produktu fresko eta kalitate onekoek oso harrera ona izan zuten herritarren artean. Gutxi bueltatu ziren esku-hutsik euren etxeetara.

Baserritik herritarren etxeetara

III. Baserri azoka egin zen larunbatean Okendon

Herritarrek aukera bikaina zuten larunbatean baserriko produktuak erosi eta etxera eramateko, eta ez zuten alferrik pasatzen utzi. 10:00etatik 14:00etara egon ziren zabalik hainbat herritatik etorritako 12 postu, eta ez zioten lan egiteari utzi, eguerdi partetik aurrera batez ere, jendetza ibili baitzen Okendo plazan bueltaka.

Baserritik Okendo plaza-
ra, eta plazatik herritarren etxeetara. Erosketak egiteko modu zuzen eta simple horrek indarra galdu du azken urteotan. Berriro indar apur bat hartzeko egiten dira larunbateko III. Baserri azokaren gisako ekimenak.

Herritarrek asko estimatzen dituzte baserritik zuzenean datozen produktuak eta ez zuten hutsik egin larunbat goizean zehar, azokako postuetatik bueltaka ibili baitziren saltzaileek eskainitakoa ikusten eta erosten, eguraldia lagun izan zutelarik. Atsedean

gutxi hartu zuten saltzaileek larunbatean azokan, eguerdi partetik aurrera batez ere. Okendo plazara hurbildutako herritar gutxi bueltatu ziren esku-hutsik etxera, salmenta ongi joan zenaren seinale.

Produktu eskaintza zabal

Denetik saldu zuten baserriarrek larunbatean: txerrikiak, behi-esnekiak, eskuz egindako pastak, baserriko ogia, Idiazabal gazta, ahate-haragia, Tolosako babarrunak, baserriko jogurtak... Eta baita jatekoak ez diren beste hainbat produktu ere: kremak eta

ukenduak, landareak, sustriak, eta abar.

Gaztetxoek ere ez zuten aspertzeko aitzakiarik izan, azoka egin bitartean jolastoki antzeko bat jarri baitzuen Udalak. Horrela, guraso eta ahaideek erosketak egin bitartean primeran pasa zuten haurrek, hainbat joko eginez. Bien bitartean, Ttiriki-Tarraka taldeko kideek plaza girotu zuten goiz osoan zehar trikiti-xa eta panderoa joz.

Ostiral arratsalde-gau partean euria egin zuenez ikusteke zegoen zer nolako izango zen eguraldia larunbatean, eta eguzkia irten ez zen arren euririk ez zuen egin gutxienez, eta azokak aurreikusitako martxa jarraitzeko arazorik ez zuen izan.

Orokorrean gustura geratu ziren antolatzaileak azokak herritarren artean izan zuten harrerarekin.



Txerrikiak arrakasta handia izan zuten larunbateko azokan.



Gaztetxoek ez zuten aspertzeko astirik izan.



Ttiriki-Tarrakako kideek plaza eta inguruak girotu zituzten azokak iraun bitartean.



Lasarteoriatar ugari gerturatu ziren Okendo Plazako 12 postuetara, eguerdi partetik aurrera batez ere.